


mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING





**Barne trebakuntza,
gure arrakastaren
ardatza.**

Espezializazioa eta esperientzia

Talleres Mitxelena 1957an sortua da;
harrezkero, oso jende trebatua
izan dugu beti. Hogeita hamar
langilek osatzen dugu enpresa.


Espezializazioa eta esperientzia

Espezialistak gara pieza handiak fabrikatzen eta pieza berezien serie bakarrak egiten; makineria berezia dugu, eta langile adituak. Eskabide bakoitzaren emaitza pieza espezifiko bat da.



Piezak eta arreta, pertsonalizatuak

Pertsonalizatua eta hurbila da gure arreta. Izan ere, funtsezko balioztat dauzkagu giza harremanak. Gure konpromisoa: zorrotz aztertzea zer behar duen bezeroak, eta harekin elkarlanean asetzea beraren premiak.



↑ **1957etik**

- ✓ **Langile adituak**
- ✓ **30 langile**

Erronka berriak

Eskabidea jaso eta xehetasun guztiak bezeroarekin aztertu ondoren, piezafabrikazioaren aurreikuspen zehatza egiten dugu. Goi-mailako prestakuntza duen lantalde bat arduratzen da fabrikazioaz.



Epearen barruan

Gure lantaldearen konpromisoari esker, ziurtatuta dago bezeroaren epe eta premietara egokitzeko malgutasuna.



TORNOAK

Makineria - Teknologia

TORNUAK	GEHIENeko DIAMETRO ONARGARRIA	GEHIENeko LUZERA
GEMINIS L	2.000	10.000
GEMINIS 1400	1.400	6.000
GEMINIS GT5	1.250	6.000
GEMINIS GHT7	1.100	17.000
GEMINIS CNC 1.000	1.000	13.000
GEMINIS HT5 G2	1.000	4.000
GEMINIS GH11	2.500	8.000
BERTIKALA	4.000	h-3.000
Bestelakoak	GEHIENeko BARRUKO DIAMETROA	GEHIENeko LUZERA
TREPANADORA	40-600	20.000
LAPEADORA	30-1.400	14.000





**MEKANIZAZIO
ZENTROAK**

Makineria - Teknologia

MEKANIZAZIO - ZENTROAK	X-ARDATZA	Y-ARDATZA	Z-ARDATZA
ZAYER 30 kcu	10.000	1.500 (solido caña diametro 150x500)	3.500
ZAYER 30 kcu	6.000	1.600	3.800







Kalitatearekiko konpromisoa

Kalitatearen alde egiten dugu, eta horren adierazgarri ditugu ISO 9001 eta EN9100 ziurtagiria.

- Aeronautika



- Gasa eta petrolioa



- Eolikoa



- Prentsak



Sektore hauentzat egiten dugu lan


- Hidroa



- Ontzigintza




Jasangarritasuna



Iraunkortasuna erantzukizun partekatua dela ulertzen dugu: ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala. Gure karbono-aztarna kudeatu eta haren jarraipena egiten dugu, etengabe murrizteko helburuarekin. Energia berriztagarriekin konprometituta gaude; gure energia-kontsumoaren %30 eguzki-paneletatik dator. Ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatzen ditugu, piezen konponketa eta berrerabilpenaren bidez. Kooperatiba garenez, gure irabazien zati bat komunitatearen eta langileen ongizaterako proiektuetan berrinbertitzen dugu.

Soziala





MITXELENA
JASANGARRITASUNAREN BIDEAN

MITECOren karbono-aztarnaren zigilu ofiziala eskuratu dugu

Talleres Mitxelenan ingurumenarekiko konpromisoa ez da hitz hutsa. Gure jardueraren eraginari neurria hartzeko eta hura hobetzeko bidean aurrerapauso berria eman dugu: Espainiako Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren (MITECO) karbono-aztarnaren erregistro ofizialean inskribatu ginen eta 2023an «KALKULATU» eta «MURRIZTU» zigilu ofizialak eskuratu genituen.

Zigilu horrek egiaztatzen du Mitxelenak bere jardueraren karbono-aztarna lau urtez kalkulatu duela, eta 3. Irismena hautatu dugula, hau da, inpaktuaren azterketa zorrotzena aplikatu dugula. Gainera, emisioak murrizteko konpromisoa hartu dugu. Aurrerantzean, emisioen jaitiera neurgarria eta frogagarria izatea izango da gure erronka.

Zer da MITECOren zigilua?

MITECOk eskaintzen duen karbono-aztarnaren erregistroa borondatezkoa da, eta helburu du enpresak emisioak kalkulatu, murriztu eta konpentsatzeko urratsak egitera bultzatzea. Zigiluak hiru fase bereizten ditu:

- **KALKULATU:** karbono-aztarna kalkulatu eta balioztatua dago.
- **MURRIZTU:** emisioak murrizteko neurriak aplikatzen hasi dira.
- **KONPENTSATU:** emisioak absorbatzen dituzten proiektuetan parte hartzen da.

Gaur-gaurkoz, Mitxelenak «KALKULATU» eta «MURRIZTU» mailak eskuratu ditu, eta etorkizunera begira «KONPENTSATU» fasearen norabidean lan egiten jarraituko dugu.

Zertarako balio du horrek guztiak?

- Gardentasuna eta erantzukizuna erakusten du gure bezero, hornitzaile eta langileen aurrean.
- Bezero eta merkatu esanguratsuen aurrean lehiakortasuna handitzen du, batez ere Europa mailan.
- Etorkizunean, murrizketa eta konpentsazio faseetara pasatzeko oinarri sendoa jartzen du.

Jasangarritasuna ez da irudi kontu bat, etorkizunera begirako estrategia baizik, eta Mitxelenan horretan sinesten dugu: ingurumena zaintzea gure lanaren parte dela.

Pertsonak eta Kooperatiba



Pertsonak dira gure baliabiderik baliotsuena. Denok gara partaide, eta horrek abantaila handiak eskaintzen dizkie gure bezeroei.

Gizarte erantzunkizun partekatua: Jarduera ekonomikoak ongizate orokorrari ekarpena egitea da gure helburuetako bat

25 urte



Kokapen estrategikoa Industriagunea

Euskal Herrian dago Mitxelena enpresa, Europaren hegoaldeko industriagune nagusietako batean, Frantzia eta Espainia lotzen dituen ardatz atlantikoan.

Europako bide-sare nagusietatik oso gertu gaude. Itsas garraioa ere oso kilometro gutxira dugu (Bilboko eta Pasaiaiko portuak).

BASQUE COUNTRY

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

Bilbo • Donostia
HERNANI

